

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2480

*959/2025 EBAZPENA, maiatzaren 22koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Zuzendaritzako idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendaritzan.*

Zuzendaritzako idazkari lanpostua hutsik dago Barrualde-Galdakaoko ESIko Erizaintzako Zuzendaritzan. Hori dela-eta, bat etorriaz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaaren hirugarren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin, Zuzendaritza Gerentzia honek erabaki du lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea, honako oinarrien arabera:

#### OINARRIAK

##### 1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Estatutupeko, funtzionario edo langile lan-kontratudun finkoa izatea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edozein zerbitzu-erakundetan eta lanpostua jabetzan edukitzea C2/D2 lanbide-taldean.

b) C2/D2 lanbide-taldeko titulua edukitzea.

c) Gutxienez 2 urteko lan-esperientzia izatea C2/D2 lanbide-taldean.

d) 2. hizkuntza-eskakizuna (derrigortasun-data: 2014-12-09).

e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko gainerako baldintzak betetzea.

##### 2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

– Esperientzia edo prestakuntza zuzendaritzako antolaketa-unitateetan.

– Esperientzia antzeko lanpostuetan.

– Ofimatikako ezagutzak: Word, Excel, Access, PowerPoint.

– Pertsonak kudeatzeko Osakidetzako aplikazioak erabiltzen jakitea (karteldegia, Osakidetzakoa).

– Gaitasuna izatea antolatzeke eta taldean lan egiteko.

– Komunikatzeko, informazioa transmititzeko eta kalitatezko tratua emateko trebetasuna.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen beste edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

### 3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

### 4.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESiko Langileen Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak (Labeaga auzoa 46-A, 48960 Usansolo). Horretarako 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran aurkeztu ahalko dira eskabidea.

Interesdunek Barrualde-Galdakaoko ESiko Langileen Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea (Labeaga auzoa 46-A, 48960 Usansolo), beren datu pertsonal guztiekin eta dokumentatutako curriculum vitaearekin batera.

Dokumentazioak honelakoa izan behar du:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada, gorkio, lan-legepeko kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentu guztien fotokopia konpultsatua.
- Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Curriculum Vitae aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan azaldu den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman beharko du eskabidean.

### 5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake, eta izangaiei horien berri emango zaie.

Izangaien balorazioa egindakoa, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatu-tako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta emango dira lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia hutsik uzteko kontuan hartutako arrazoiak.

### 6.– Hautaketa-prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAr argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

### 7.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen ebazpenaren bidez amaituko da honen bidez hasitako prozedura (lanpostua esleitzea edo hutsik

uztea), eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren intranetean zein webgune korporatiboan argitaratuko da. Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAan argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Usansolo, 2025eko maiatzaren 22a.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentea,  
GEMMA FERNANDEZ PEÑALBA.